

Hace un buen rato que se va notando en casi todos los ámbitos culturales una manifiesta feminización. En un síntoma de los tiempos, la plasmación de una realidad que en actividades artísticas han estado arraigadas de manera implícita. Hay oficios en diferentes rubros culturales donde la prevalencia de mujeres en toda la cadena de valor es bastante clara, efectiva y superlativa en cuanto a resultados. Repasando los Premios Nacionales en diversas categorías, tanto desde el Gobierno español como desde la Generalitat de Catalunya, se nota un porcentaje muy

Feminización



Carlos GIL ZAMORA
Analista cultural

elevado de mujeres premiadas. Si se siguen los premios importantes en los certámenes cinematográficos esta normalización de mujeres en los primeros lugares del palmarés viene siendo algo que ya no provoca comentario.

En los teatros de las capitales de Hegoalde, hay un empate a dos al frente de sus direcciones. Si en la danza la presencia de mujeres en todo el escalafón ha sido más habitual, ahora mismo en las ar-

tes escénicas hay una explosión de dramaturgas, directoras de escena, escenógrafas que copan un amplio porcentaje de las programaciones bastante superior al de otros tiempos cercanos.

Quizás debamos realizar estudios más pormenorizados para detectar si esta feminización comporta cambios en las formas y los contenidos de lo que se produce, o estamos ante una variante lógica, una magnífica evolución que se compadece de una manera orgánica con lo que sucede en el resto de la sociedad, pero todavía es pronto para que se pueda calificar de una auténtica revolución.


Iraitz MATEO | DONOSTIA

Asier Serranok "Euri gorriaren azpian" (Erein) eleberria aurkeztu zuen atzo goizean Donostian. Idazletzatik erretiratu den emakume bat da eleberriko protagonista, 25 urte igarotakoan jaioterrira itzuliko dena; izan ere, diktaturapeko hiri batean ezagutu zuen bere senarra bihurtu zen antzezlea, eta orain, senarra hilzorian dagoenean, hirira itzuliko da haren enkargu bat betetzera.

Misterioz eta sinboloz beteriko liburua dela esan zuten aurkezpenean eta irakurlearekin jolas egiteko asmoz zenbait amu daudela eleberrian zehar. «Hemen biltzen da nire literatura eta nire mundu osoa», aitortu zuen atzo, eta onartu, zirkulu bat itxeko balio izan diola eleberria argitaratzek; «jada ez diot ezer zor literaturari».

«Barne bidaia bat da bidaia baten barnean»; hala deskribatu zuen Uxue Razquin Ereineko editoreak. Serranok bere ohiko estiloari eutsi dio liburu berrian, editorearen esanetan: «Bortitza da, latza, lohitsu, baina aldi berean Serranoren estiloaren poetikotasunari eusten dio, irakurketa hipnotikoa izatea lortzen du, irudi metaforiko asko erabiltzen ditu».

Kaxoian egondakoa Orain dela bost urte hasi zen eleberririk hau idazten, bere buruari ezarritako «promesa» baten harira; izan ere, aurkezpenean kontatu zuen trilogia bat idazteko asmoa zuela. Bazekien hiru liburuetako bat gerraren ingurukoa izango zela, bigarren batek boterea landuko zuela eta hirugarrena, aldiz, etikaren ingurukoa izango zela. Ez zekien, ordea, zein hurrenkera-
tan ordenatuko zituen; "Euri berriaren azpian" eleberria idaztean konturatu omen da azken batean hiru liburuek hitz egiten dutela botereari buruz.



Asier Serranok «Euri gorriaren azpian» izeneko eleberria argitaratu du. Andoni CANELLADA | FOKU

Boterea eta misterioa nahasian ageri dira Asier Serrano idazlearen lan berrian. "Euri gorriaren azpian" izeneko eleberria kaleratu du, «barne-bidaia bat bidaia baten barnean».

«Euri berriaren azpian», misteriozko itzulera bat

MISTERIOA

Eleberriko istorioan misterioa mantentzeaz gain, irakurleak ez du jakingo nor den narratzailea, eta jolas hori ere baliatu nahi izan du idazleak.

Boterearen inguruan hausnartzen du liburuak; idazlearen ustez, boterea oso forma ezberdinetan topa daiteke: «Ekonomiaren maskarapean, multinazional eran, politikariaren erotika forman... ez dakit zer den boterea, norberaren irrintzitik agertzen den zerbait da».

Eleberraren zirriborroa kaxoitik atera, eta pandemiaren ondoren erabaki zuen hasitako liburua argitaratzea; egungo ikuspegitik, aldiz, erabaki hobea iruditzen zaio egun argitaratzea: «Liburu honek

gaur egun du zentzua, eta akaso horregatik egon da kaxoian. Azken urteetako gizartearen ez-aldaketek eman diote zentzua liburuari».

Baztertutako pertsonaiak «Gizartean baztertuak izan diren pertsonaiak» jasotzen ditu liburuak, Serranok azaldu zuenez, eta argitu zuen idazterakoan berak ez duela dokumentazio lanik egiten; «amesgaiztoetatik abiatzen naiz». Gaineratu zuen bere ahalegina bizi dugun gizartearen errealitatea «eskuratzean»

datzala, «horrorean edertasuna bilatzea».

Protagonista idazlea da, eta bere senarra, antzezlea. Horrek sorkuntzaren inguruan hausnartzeko tartea ere eskaini dio Serranori; «zergatik heldu etengabeko gaupasa intelektuari?», galdetu zion bere buruari, eta eleberria idazten hasterakoan galdera batekin tematu zen: zergatik idatzi?

Eleberria idazteko prozesuan aurrera egin ahala, berriaz, beste galdera bat agertu zitzaion parez pare: zergatik argitaratu? Eta azkenean urratsa egitera duela urtebetezko juntadizo batek bultzatu zuela kontatu zuen. Lubaki banda-koak elkartu ziren eta horrek zerbait «piztu» omen zion. «Zertarako existitu zen Lubaki banda? Ahots narratibo horiek borobiltzeko jaio zen, horretarako balio zigun argitaratzek», adierazi zuen, oraingoan ere horretarako balio izan diola gaineratuta.

Aipatu bezala, emakumezkoa da protagonista, eta horrek ere sortu izan dizkio zalantzak eta kezak: «Beldurra nuen ea lortu ote nuen ondo transmititzea; kontaketa erreala egiten ote nuen interesatzen zitzaidan». Bestearren lekuan jartzea interesatu izan zaio betidanik; «ulertzen ez dudan hori ulertu nahiak ere bultzatzen nau idaztera».

Irakurleak interpelatu eta jolaslastu Irakurlearekin joko moduko bat egin nahi izan du Serranok; galdera zuzenak egiten dizkio tarteka narratzaile orojakileak. «Irakurleak berak esan beharko dio bere buruari nor den narratzailea; nor dago ahots narratibo horren atzean?». Irakurleen erantzunak jasotzeko irrikaz dago Serrano.

«Azkar» irakurtzen den liburua da, bere ustetan, baina bere helburua, azkar irakurritza ere, kantu txarrekin gertatzen den gisan, «buruan bueltaka gertatzea» da.